

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA, 2022KO ABENDUA

Orain dela hiru urte, 2019ko ekitaldiaren amaieran, Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzeko proposamena adostu genuen Elhuyar enpresarekin elkarlanean. Plan horrek bat egiten du denboran Eusko Jaurlaritzaren 6. Plangintzaldirako Normalizazio Planarekin (2018-2022 aldia).

Elhuyar Aholkularitzarekin dugun elkarlana 2019-2023 urteen bitartekoa da, eta Lan Harremanen Kontseiluan, bai zuzendaritzaren aldetik, bai langileen aldetik oro har, positiboki baloratzen da egiten den lana. Oraindik ere urrats berriak daude emateko, eta asmo berriak gauzatzeko, baina akaso orain gehiago tokatzen da orain arte egindakoak finkatzeko lan egitea.

Izan ere, 2022 urterako zehaztutako kudeaketa-planean hainbat helburu jarri ziren, eta horietako asko bete badira ere, beste batzuk guztiz betetzeke geratu dira, eta, hainbat arrazoi direla eta (denbora-falta, kasu gehienetan), batzuk atzeratu egin dira.

Urtean zehar 9 aldiz batu da Lan Harremanen Kontseiluaren Euskara Batzordea, eta denetan presente egon da Elhuyarreko ordezkaria (Maite Unzalu), batzordekide diren Kontseiluko langileekin batera: Yolanda Zarandona, Idazkari nagusia; Nerea Elguezabal, Administrazio-arloko burua; Bego Pérez, administraria; Asier Aldaiturriaga, lan-harremanetako teknikaria; eta Josu Arroyo, hizkuntza-normalkuntzako teknikaria.

Urtearen amaierako balantzea positiboa da, egindako lanak ondorio positiboak dituela dituela ikusten ari baikara.

2022KO EKITALDIKO MUGARRIAK

ZERBITZU HIZKUNTZA

Errotulazioa

- *Errotulazioaren ikuskapena* egin da.

Jendaurreko ekitaldiak

- *Presidentearen urteroko prentsaurrekoa, aurreko ekitaldiaren balantzea egitekoa* (uztailaren 14an egin da, Bilboko egoitzan). Aurreko bi urteetan ez da egin, pandemiagatik.
 - o Tomás Arrieta presidenteak aurkezpenaren hasiera eta amaiera euskaraz egin du (gainerakoa gaztelaniaz), eta Tomásek bere

azalpena behin amaituta, hizkuntza-normalkuntzako teknikariak, Josu Arroyok, aurkezpen guztiaren laburpena egin du euskaraz.

Informazioa gaztelaniaz proiektatu da, eta amaieran kazetariei dokumentazioa ele bitan eman zaie.

Komunikabideetan presentzia izan dugu (EITBn, euskaraz eta gaztelaniaz).

Hurrengo agerraldiei begira, berdin jokatzea da asmoa.

ZERBITZU HIZKUNTZA ETA LAN HIZKUNTZA

Neurketak

- *Euskararen ahozko erabileraren neurketa* egin da martxoan.
 - 2020az geroztik egiten den hirugarren neurketa da.

2020tik 2021era jauzi handia sumatu zen euskararen erabileran; 2021etik 2022ra ez da aldaketa handirik sumatu.

Aurrerantzean ere euskararen ahozko erabilera neurtuko da (urtean behin bai, behintzat).
- *Lankideen arteko (zuzendaritza barne) idatzizko mezu laburren neurketa* egin da maiatzean.
 - Oso emaitza positiboak eman zituen maiatzeko neurketak: mezuen %70 euskara hutsean dira.
- *Aplikatzeko hitzarmenari buruzko kontsulten neurketa* egin da urte osoan (eskaera nola etorri den, eta nola erantzun zaion).
 - Iazko egoera berean gaude aurten ere. Mezu gehientsuenak gaztelaniaz datoz, eta horiei ele bitan erantzuten zaie.

Euskara hutsean datozenei soilik euskaraz erantzuten zaie.

Datorren urtean kontsultetako hizkuntzaren neurketa egiten jarraituko dugu, eta ideia berriak planteatuko dira, euskaraz gehiago etor daitezen.
- *Langile batek (zuzendaritza barne) lantaldeari edo lantokiko talde jaki bati bidalitako idatzizko mezu orokorren neurketa* egin da urte osoan.

- Benetan pozgarria da egiaztatzea gisa honetako mezu gehienak euskara hutsean bidaltzen direla. Izan ere, gurean ezagutza bermatuta dago. Langile batzuen konpromisoa ezinbestekoa da honetan.

LAN HIZKUNTZA

Formakuntza

- Urtean zehar zenbait formakuntza-saio egin dira, Lan Harremanen Kontseiluko langile orori zuzenduta, eta euskararen presentziari dagokionez, hauxe eman dute aipaturako saioek:

Euskara Planari lotuak

- 2022ko otsailean *Euskarazko Interneteko Baliabideei* buruzko formakuntza-saioa egin da (hiztegi neuronalak, etab.). Maite Unzalu Elhuyarreko aholkularia eta Josu Arroyo normalkuntza-teknikaria izan dira hizlari, eta langile askok hartu dute parte (aurrez aurre eta online).

Dena euskaraz egin da.

- 2022ko ekainean egindako formakuntza-saioan jarraibideak eman zaizkie langileei *Sistema Eragilea euskaratzeko*, baita *Teams euskaratzeko* ere. Maite Unzalu Elhuyarreko aholkularia izan da hizlari, eta honetan ere langile askok hartu dute parte (aurrez aurre eta online).

Dena euskaraz egin da.

Orokorrak

- Tomás Arrieta presidentek formakuntza-saio bat eman du *Lan erreformari* buruz, martxoan, Bilboko egoitzan.

Hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egiten ditu Tomásek.

Euskarri digitala gaztelaniaz egon da.

- Azterlanen zerbitzuko buru Javier Gonzálezek bi formakuntza-saio eman ditu 2022an (Bilboko egoitzan): bata martxoan, *KPIari eta inflazioari* buruz; eta bestea azaroan, *Enplegurako Pentsio Planei* buruz.

Hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egin ditu Javik.

Euskarri digitala gaztelaniaz egon da.

- DERTENek bi formakuntza-saio eman ditu 2022an (Bilboko egoitzan).

Lehenengoan, maiatzean, *Zibersegurtasuna* izan da ardatz nagusia. Jose Luis Amado hizlariak euskaraz egin ditu hasierako eta amaierako agurrak, eta azalpenean ere euskaraz aritu da tarteka.

Euskarri digitala gaztelaniaz egon da.

Bigarrenean, azaroan, *Share Point eta Onde Drive-ren erabilerari* buruzko argigibide jakin batzuk eman dira. Toño Vadillok gidatu du saioa, eta dena gaztelaniaz egin du.

Webgunean: Hizkuntza Normalkuntza

- Martxoaz geroztik, Lan Harremanen Kontseiluaren Hizkuntza Normalkuntzako arloak bere atala eguneratuta du webgunean.

Euskara Batzordea

- Aurten, orotara, 9 bilera egin ditu Euskara Batzordeak. Urtarriletik kide berria dago taldean: Asier Aldaiturriaga, lan-harremanetako teknikaria eta langileen ordezkaria.

BAGABILTZA buletina

- BAGABILTZA izeneko buletinaren lau zenbaki argitaratu dira 2022an: lehenengoa otsailean, bigarrena maiatzean, hirugarrena urrian eta laugarrena abenduan.

Euskara Saioak

- Lan Harremanen Kontseiluan EUSKARA SAIOAK izeneko ekitaldi bereziak antolatzea zen 2022ko Kudeaketa Planaren helburuetako bat, eta guztira hiru egin dira, hirurak ere Bilboko egoitzan: apirilean, irailean eta abenduan.

Saio hauek baliatu ditugu Euskara Planaren baitako ekimenen balorazioa egiteko, formakuntza-saioetan ikusitakoak praktikan jartzeko, etab. Baina euren alde informala ere izan dute saiook, tartean izan baitira lehiaketak, jolasak...

Nor dabil zuzen

- Ekainean galde-erantzunen lehiaketa antolatu zen izen horrekin; hain zuzen ere, ekaineko ostiraletan, besteak beste BOST MINUTUKO IKASTAROA delakoaren errepasoa egiteko.

Udako postalak

- Udako postalen ekimena antolatu da 2022an. Kontseiluko langileek postal bana (edo gehiago) bidali dituzte, euren oporlekuetatik. Guztira, 13 langilek hartu dugu parte. Iraileko euskara-saioan, ekimenean parte hartutako langile guztiek aukera izan dute euren postalez aritzeko. Ekimen arrakastatsua izan zen.

KORRIKA

- Apirileko Euskara saioan, Korrikari lotutako dokumentala ikusi genuen. Eta, 22. Korrika Euskal Herrian zehar ibili zen egunetan, Elhuyarren Korrika Digitalaz gozatu genuen egunero.

EUSKARALDIA

- 2020an egin zuen bezala, 2022an ere Euskaraldiarekin bate gin zuen Lan Harremanen Kontseiluak; langile askok txapa aldean eraman genuen (*ahobizi* edo *belarriprest*), eta *Arigunea*, euskaraz lasai aritzeko gunea, izan ginen.

Webgunean horren berri eman genuen.

2023KO EKITALDIRAKO ASMOAK

- Urtean zehar artikuluren bat sortzea euskaraz (**Zerbitzu Hizkuntza**)
- Neurketekin jarraitzea (**Zerbitzu eta Lan Hizkuntza**)
- Euskara Saioak antolatzen jarraitzea (**Lan Hizkuntza**)
- Bileretako euskararen erabilera neurtzea (**Zerbitzu eta Lan Hizkuntza**)

- Bileren aurreko eta osteko dokumentuetan euskararen presentzia aztertzea
(Zerbitzu eta Lan Hizkuntza)
- Berriro mintzapraktika-saioei ekitea
(Lan Hizkuntza)
- Hilean behin Euskara Batzordeko bilerak egiten jarraitzea
(Lan Hizkuntza)
- BIKAIN ziurtagirirako simulazioa egitea